

Etika eta Jokabide Kodea



Edukia

Edukia	2
Xedea	3
Aplikazio-eremua	3
Anesvaden jokabidearen printzipio gidariak	4
Jokabide-jarraibideak jardun-alorren arabera	4
Legaltasunarekiko, giza eskubideekiko eta balio etikoekiko errespetua.....	5
Pertsonenganako errespetua	5
Garapen profesionala eta aukera-berdintasuna	5
Kolaborazioa eta dedikazioa	6
Segurtasuna eta osasuna lanean	6
Aktiboen erabilera eta babesa.....	6
Finantza-kudeaketa	7
Ustelkeria eta eroskeria	7
Ordainketa/kobrantsa irregularrak eta kapitalak zuritzea	7
Erakundearen irudia eta ospea	8
Leialtasuna erakundearen eta interes-gatazken aurrean	8
Informazioaren eta ezagutzaren tratamendua	8
Portaera bidaietan.....	9
Dohaintza-emaileekiko harremanak	10
Entitate laguntzaile eta hornitzaileekiko harremanak	10
Ingurumenarekiko errespetua.....	11
Kodea onartzea eta betetzea	11
Indarraldia	12
Etika eta Jokabide Kodea aplikatzeko barne-prozedura	13
1. eranskina - Webguneko pribatutasun-politika (salaketen kanala)	18

Xedea

Anesvad Fundazioa (hemendik aurrera, Anesvad) Osasunerako Giza Eskubidearekin konprometitutako erakunde bat da. Haren Asmoa pertsona eta komunitate baztertuenen osasuna hobetzea da, eta haren Eginkizuna, berriz, *Saharaz hegoaldeko Afrikan Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen aurka borrokatzea, osasun-sistema publikoak indartuz Giza Eskubideen ikuspegi batetik*.

Adierazpen horietan oinarritzen dira Anesvaden nortasun-ezaugarriak. Nortasun-ezaugarri horietan honako hauek ezartzen dira: fundazio-nortasuna, balioak, funtsak, zeharkako perspektibak, geografikoa- eta biztanleria-lehentasunak, esku hartzeko eta fundazioko eredia, Anesvaden forma juridikoa, kudeaketa- eta finantza-eredua eta oinarri soziala barne. Anesvadek hainbat balio sustatzen ditu, **Etika, gardentasuna eta kontu-ematea**, besteak beste. Giza eskubideen ikuspegi batetik lan egiteak ezinbestean dakar jarduerari eredu etiko bati jarraikiz ekitea, **Pertsonen duintasuna** babesteko azken xedearekin.

Hortaz, Anesvaden Etika- eta jokabide-kodearen helburua da (hemendik aurrera, Kodea), Patronatuaren, Aholku Batzordearen eta langile eta boluntarioen portaera etikoa gidatu behar duten jarraibideak ezartzea, egunero interes-talde guztiekin aurrera daramatzaten harreman eta interakzio guztiei lotutako jardunari dagokionez. Eta interes-talde horiek honako hauek dira, bereziki: kalteberatasun-egoeran dauden pertsona eta komunitateak, langile eta boluntarioak, erakunde aliatuak eta kanpo-laguntzaileak, dohaintza-emaileak, erakunde publiko eta pribatuak, hornitzaileak, eta gizartea oro har, Espainian zein Anesvadek lanean diharduen gainerako herrialde eta lurraldeetan.

Kode hori Anesvaden Nortasun-ezaugarrietan oinarritzen da eta horien osagarri da, eta jardunbide-gida bat da Anesvad osatzen duten pertsonen jardun profesionalean portaera egoki bat ziurtatzeko, indarreko legeriarekin eta ezarritako barne-araudiarekin bat etorritz.

Kodeak islatzen du gobernu onaren eta arauak betetzearen printzipioa, Anesvadek aplikatzen duena, Kodea eta ezarritako arauak ez betetzearekin zerikusia duten irregulartasunak prebenitu, detektatu eta desagerrarazteko, pertsonen funtsezko eskubideak urratzen dituzten abusuzko eta jazarpeneko jardunbide eta jokabideak bereziki azpimarratuz, baita legez kanpo egin litezkeen ekintza penalak ere. Anesvaden ustez, gai horietan erantzukizunak eskatzen du, besteak beste, kontrol-neurriak diseinatu eta ezartzea, Kode honetan jasotako gaietan arriskuak erregulartasunez aztertzeke, erakundearen barruan arauen berri badagoela ziurtatzeko, erantzukizunak definitzeko eta irregulartasunen jakinarazpen eta salaketa konfidentziala (eta zuzenketa) ahalbidetuko duten prozedurak ezartzeko.

Arauak betetzeaz gainera, Anesvadentzat lehentasunezkoa da edonolako jazarpen- eta abusu-egoerak edo beren funtsezko eskubideen urraketak paira ditzaketen pertsonen babesa, laguntza eta defentsa eskaintzea.

Aplikazio-eremua

Anesvaden Kodeak **Anesvad osatzen duten pertsona guztiak** ditu helburu (**Patronatua, Aholku Kontseilua, Zuzendaritza Batzordea, eta, oro har, Anesvadeko langile guztiak, boluntario-lanak egiten dituzten pertsonak barne**), betetzen duten posizioa edo diharduten lekua edozein izanik ere. Bestetik, Anesvadek bultzatu egingo du, bere hornitzaile eta entitate laguntzaileen artean, portaera-jarraibideak hartzea Kode honetan definitutakoen ildo beretik.

Kode hau nahitaez aplikatzekoa da, halaber, Anesvad osatzen duten pertsonen egiten dituzten bidaietan eta bidai horietan ezartzen diren harremanetan, bereziki jardunaren eraginpeko pertsona eta komunitateekin eta toki-bazkide laguntzaileekin ezartzen direnetan.

Oro har, Anesvadek bere hornitzaile, pertsona eta entitate laguntzaile eta toki-bazkideei eskatuko die

Kode hau edo Kodeak ezarritako jarraibide espezifikoak betetzeko konpromisoa har dezaten, garatzen duten jardueraren arabera. Halaber, Anesvadekin lotutako edozein pertsona edo erakunderi ere ezar diezaioke Kodea, egokitzen jotzen duenean eta harremanaren izaerak ahalbidetzen duenean.

Anesvadeko Patronatuak eta Zuzendaritza Batzordeak beren esku dauden bitarteko guztiak jarriko dituzte beren Asmoa, Eginkizuna, Ikuspegia, Balioak eta Printzipioak zabaltzeko eta Kode honetan jasotako jokabide-jarraibideak betearazteko. Horrez gain, erreferentziako eredu izango dira beren portaerari eta Kodea betetzeko mailari dagokienez. Kode honetan jasotako jokabide-irizpideen asmoa ez da Anesvad osatzen duten pertsona guztiak bidean aurki ditzaketen egoera edo zirkunstantzia guztiak barne hartzea, beren jardura profesionalean diharduten bitartean jarduteko bidea erakutsiko dieten jokabide-jarraibide orokor batzuk ezartzea baizik.

Anesvaden jokabidearen printzipio gidariak

Anesvadek uste du, bere jardura garatzen duen ingurune soziala osatzen duten pertsona guztien (dohaintza-emaileak, erakunde aliatuak, kanpo-laguntzaileak eta hornitzaileak) konfiantza honetan oinarritzen dela: Anesvad osatzen duten pertsona guztiak eta bakoitzak beren jardun profesionalean erakusten duten integritatea eta erantzukizuna.

Integritatea diogunean jardun etiko, zintzo eta fede onekoa esan nahi dugu. Eta erantzukizun profesionala diogunean, berriz, jardun proaktiboa eta efizientea adierazi nahi dugu, bikaintasuna, kalitatea eta Anesvaden xedeak banetan betetzea jomugan duena.

Anesvadek espero du bere kide guztiak integritatez eta erantzukizunez jardutea beren eginkizunak betetzean. Horrez gain, Anesvadek espero du bere erakunde aliatu, kanpo-laguntzaile eta hornitzaile guztiak printzipio horiekin bat datorren portaera bat izatea. Edozein pertsonak Batzorde Etikoari kontsulta diezazkioke Kode honetan jasotako jokabide-jarraibideak interpretatzean sortzen zaizkion zalantzak, eta salatu beharko ditu, fede onez eta errepresalien beldur izan gabe, bere jardun profesionalean Kodearen jardunbideei dagokienez ikusten dituen ez-betetze guztiak, salaketa-kanalaren, bere nagusi hierarkikoaren, Anesvaden Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, edo, egokitzen jotzen badu, Zuzendaritza Batzordeko beste edozein kiderengana joz. Pertsona horietako edozeinek ez-betetze bati lotutako jakinarazpen argi eta ongi justifikatu bat jaso eta berehala, Anesvaden Batzorde Etikoari jakinaraziko dio, ondo aztertu eta kudea dezan.

Jokabide-jarraibideak jardun-alorren arabera

Kodeak jardun-jarraibide espezifikoak zehazten ditu honako eduki-arlo hauetan:

- Legaltasunarekiko, giza eskubideekiko eta balio etikoekiko errespetua
- Pertsonenganako errespetua
- Garapen profesionala eta aukera-berdintasuna
- Kolaborazioa eta dedikazioa
- Segurtasuna eta osasuna lanean
- Aktiboen erabilera eta babesa
- Finantza-kudeaketa
- Ustelkeria eta eroskeria
- Ordainketa/kobrantsa irregularrak eta kapitalak zuritzea
- Erakundearen irudia eta ospea
- Leialtasuna erakundearen eta interes-gatazken aurrean
- Informazioaren eta ezagutzaren tratamendua
- Portaera bidaietan
- Dohaintza-emailekiko harremanak

- Entitate laguntzaile eta hornitzaileekiko harremanak
- Ingurumenarekiko errespetua

Legaltasunarekiko, giza eskubideekiko eta balio etikoekiko errespetua

Anesvadek bere gain hartzen du, une oro, bere forma juridikoaren eta garatzen duen jardueraren arabera dagokion indarreko legeria aplikagarria betez eta garatutako barne-araudia betez jarduteko konpromisoa, giza eskubideak eta pertsonen eskubideak erabat errespetatuz. Anesvadek bere jarduera eta esku-hartzeak garatzen ditu Anesvaden Nortasun-ezaugarrien dokumentuan jasotako Eginkizunari, Ikuspegiari, Balioei eta Printzipioei buruzko adierazpenari jarraikiz. Emakumeen eta gizonen artean desparekotasunak ezarriz emakumeen eskubideen urraketa dakarten genero-oztopoei arreta berezi bat eskainiko zaie.

Anesvad osatzen duten pertsona guztiek, beren jarduera garatzen duten herrialdeetan indarrean dagoen legeria bete behar dute, jardueraren xedea betez eta beren jardun guztietan portaera etiko bat agertuz. Edozein kolaborazio mota ezarri baino lehen, herrialde horietako baten legeriaren eta Espainiako edo Europako legeriaren artean gatazkaren bat dagoela edo egon daitekeela ulertzen bada, behar diren lege-kontsultak egin beharko dira nahitaez, lankidetzaz bideragarria den edo ez baloratzeko eta/edo alderdien artean ezarri beharreko muga eta baldintzak ezartzeko. Halaber, gatazka sortzen bada behin lankidetzaz ezarri ondoren, egoera aztertu beharko da bideragarria ote den baloratzeko. Horrez gain, pertsonen, komunitateen, herrialdeko gobernuaren edo beste erakunde batzuen aurrean Anesvaden ospearen edo erakundearen interesen kalterako izan daitezkeen jokabide guztiak saihestu beharko dituzte, nahiz eta jokabide horiek legea urratu ez.

Anesvad osatzen duten pertsona guztiek zintzotasunez eta integritate osoz jardun behar dute gobernu eta administrazio guztietako agintari eta funtzionarioekin dituzten harreman eta transakzioetan, aurkezten dituzten informazio eta ziurtagiri guztiak eta egiten dituzten adierazpenak egiazkoak direla ziurtatuz.

Anesvad osatzen duten pertsonak ezagutu behar dituzte beren lanari eragiten dioten legeak, eta bidezko bada informazio zehatza eskatuko dute beren arduradunaren edo dagozkion instantzien bitartez. Anesvad osatzen duten pertsonetako batek ere ez du kontzienteki hirugarrenekin kolaboratuko edozein legeren urraketan, eta ez du parte hartuko legezketasun-printzipioarekiko errespetua kolokan jartzen duen ezein jardunetan. Anesvadek, berriz, behar diren bitarteko guztiak jarriko ditu bere kideek, une oro, betetzen dituzten eginkizunetarako garrantzizkoa den kanpo- eta barne-araudiaren berri izan dezaten, eta legezketasuna eta balio etikoak betetzen direla ziurtatzeko behar diren barne-kontrolko ereduak ezarriko ditu.

Pertsonenganako errespetua

Anesvadek gaitzesten ditu jazarpen edo abusu fisiko, psikologiko, sexual, sexista, arrazista, edo moralak eta agintekeria beren adierazpen guztietan, baita pertsonenganako larderiazko ingurune edo ingurune iraingarri bat ekar dezaketen gainerako jokabide guztiak ere.

Anesvad osatzen duten pertsona guztiak errespetuz hartu behar dira, harreman onak eta lan-ingurune atsegin, osasungarri eta seguru bat ahalbidetuz. Anesvad osatzen duten pertsona guztiek zuzentasunez eta errespetuz tratatu behar dituzte lankideak, arduradunak eta kolaboratzaileak.

Anesvad osatzen duten pertsonak beste pertsona batzuekin edozein jardun-eremutan izango duten jokabidea, Kode honetan jasotako jarraibideetan oinarrituko da.

Garapen profesionala eta aukera-berdintasuna

Anesvadek bere langile guztien garapen profesionala eta pertsonala sustatzen du, aukera-berdintasuna

ziurtatuz bere jardun-politiken bitartez. Ez du lanean edo eremu profesionalean inolako diskriminaziorik onartzen honako arrazoi hauengatik: adina, arraza, etnia, sexu-orientazioa eta genero-identitatea, erlijioa, iritzi politikoa, nazionalitatea, jatorri soziala edo desgaitasuna.

Gainera, Anesvadek babesten du, eta bere gain hartzen du, aukera-berdintasun handiago bat bultzatzeko eta merezimenduan oinarritutako kultura bat sustatzeko ezarritako politika publikoen aplikazioa. Anesvadeko langileen hautaketa eta promozioa, lanpostuaren betekizunetan definitutako merezimendu-irizpideetan eta gaitasun-irizpideetan, konpetentzietan eta eginkizun profesionalak betetzean oinarritzen dira. Langile guztiek modu aktiboan parte hartu behar dute Anesvadek haien eskura jartzen dituen prestakuntza-planetan, nor bere garapenean inplikaturik eta behar diren ezagutza eta konpetentziak egunean edukitzeko konpromisoa hartuz, beren aurrerabide profesionala errazteko eta erakundearen jarduerari balioa gaineratzeko helburuarekin. Zuzendaritza-karguak dituzten pertsonak kolaboratzaileei bidea erraztu behar diete garapen profesionalean, erakundearen arlo profesionalean hazteko aukera izan dezaten.

Anesvadek uste du pertsonen garapen integrala garrantzitsua dela, eta horregatik erraztuko du bizitza profesionalaren eta bizitza pertsonalaren artean beharrezkoa den oreka.

Kolaborazioa eta dedikazioa

Anesvadek lankidetzan eta taldean lan egiteko ingurune bat eskaintzen du, gaitasun eta baliabide guztiak hobeto aprobetxatu ahal izateko. Anesvad osatzen duten pertsona guztiek lankidetzaren espirituarekin jardun behar dute, erakundearen gainerako pertsona eta antolamendu-unitateen eskura jarritzeko helburu edo interes komunak lortzeko bidea erraz dezaketenean ezagutza edo baliabide guztiak. Langileek efizientziaz jardun behar dute, erakundearen eskura jarritako denbora eta baliabideak errentagarri eginez eta parte hartzen duten prozesu guztietan ahalik eta baliorik onena ematen saiatuz.

Segurtasuna eta osasuna lanean

Anesvadek lanean segurtasuna eta osasuna bermatzeko politikak aplikatzen ditu, eta indarreko legerian arlo horretan ezarritako prebentzio-neurriak hartzen. Gainera, entitate eta hornitzaile kolaboratzaileek lanean segurtasuna eta osasuna bermatzeko politika eta neurriak ezar ditzatela bultzatzen eta sustatzen du.

Anesvaden ustez, segurtasuna erakundearen erantzukizuna da, baina erantzukizun indibiduala azpimarratzen du enplegu-baldintza gisa ezarritakoak, eta horregatik ez du seguruak ez diren portaerarik onartuko, pertsona, instalazio edo ekipoen kalte larrien eragile izan daitezkeen neurrian.

Muga batzuk ezarri dira portaera ez-seguru horiek saihesteko helburuarekin. Anesvad osatzen duten pertsonak ezin dituzte gaitzitu, eta honako hauek dira:

- Anesvaden konturako jarduerak gauzatzean modu bidegabe eta arriskutsuan jardutea, norberaren eta/edo beste pertsona batzuen, instalazioen edo ekipoen osotasuna arriskuan jarritzeko.
- Anesvaden konturako jarduerak gauzatzean langileek zein zerbitzuak ematen dituen edozein kanpo-kolaboratzailek eragindako lan-istripuak edo oso istilu larriak ezkutatzeko eta hirugarrenak horrelakorik egitera eramatea.
- Segurtasun-erregistroak faltsutzea.
- Segurtasun-arauen ez-betetzeak ezkutatu edo agintzea.

Aktiboaren erabilera eta babesa

Anesvadek bere langileen eskura jartzen ditu bere jardueraren profesionalean jarduteko behar dituzten baliabideak, eta horiek babestu eta zaintzeko bitartekoak jartzeko konpromisoa hartzen du. Langile

guztiak modu zorrotz, arduratsu, efiziente eta egokian erabiliko dituzte erakundearen baliabideak beren jarduera profesionalaren inguruan. Horrez gain, baliabide horiek guztiak babestu behar dituzte, erakundearen interesen kalterako izan daitekeen edozein erabilera desegokitik.

Anesvadek ez du onartzen bere langileen esku jartzen dituen ekipoak erabiltzea legez kontrakoak diren, edo erakundearen irudi edo ospearene kalterako izan daitezkeen programa edo aplikazioak erabiltzeko, ezta legez kontrakoak edo iraingarriak diren edukiak deskargatu edo banatzeko edo haietan sartzeko ere.

Anesvad osatzen duten pertsona guztiak zorrotzasunez ezarri beharko dituzte informazioaren segurtasunari dagokionez erakundeak ebazten dituen neurriak.

Finantza-kudeaketa

Anesvadek bere ondarearen eta finantza-baliabideen kudeaketa etiko, garden eta estrategikoaren aldeko konpromiso irmoa hartu du, ondareak eta baliabideek erakundearen xedeak bete ditzaten. Kontabilitateari eta finantza-kudeaketari dagokienez indarreko legeriak ezartzen dituen betekizun eta arauak beteko ditu une oro.

Fundazioaren kapitala inbertituko da lankidetzara arautzen duten printzipio moralei ahalik eta modurik etikoenean eta estuenean lotuz, eta irabazi-asmorik gabeko entitateen inbertsioei dagozkien jokabide-kodeak aplikatuz. Fundazioaren inbertsio-politikak alde batera utziko ditu printzipio horiekin bat ez datozen jarduera eta portaerak, eta gainera, inbertsioen integrazioa lehenetsiko du, inbertsio sozialki arduratsuen irizpideekin bat datozen politikak badakartzate berekin.

Ustelkeria eta eroskeria

Ustelkeria eta eroskeria agertzen dira langileek legez kontrakoak edo etikoak ez diren jardunbideak baliatzen dituztenean beren edo Anesvaden mesederako den onuraren bat lortzeko. Ustelkeriak eta eroskeriak iruzur kategorietako bat osatzen dute.

Anesvadek uko egiten dio Anesvadetik kanpoko pertsonen borondatean eragiteari legez kontrakoak diren edo etikoak ez diren jardunbideak erabiliz onuraren bat lortzeko. Eta ez du onartuko, halaber, beste pertsona edo entitate batzuek beren langileekin horrelako jardunbideak baliatzea. Anesvad osatzen duten pertsonak ezin izango dute edonolako opari edo konpentsaziorik zuzenean edo zeharka jaso, baldin eta entitate publiko zein pribatuekin dauzkan harreman komertzial, profesional edo administratiboetan bidegabe eragiteko helburua badute.

Halaber, Anesvad osatzen duten pertsonak ezin izango dute edonolako ordainketa, opari edo konpentsaziorik zuzenean edo zeharka egin, baldin eta jardueraren ohiko jardunaren berezkoz jotzen ez badira eta entitate publiko zein pribatuekin dauzkan harreman komertzial, profesional edo administratiboetan bidegabe eragiteko helburua badute.

Anesvadek bere jarduera garatzeko hirugarrenengana jotzen duenean, Kode honetan jasotako antzeko konpromisoak onartu beharko dituzte hirugarren horiek, entitate pribatu eta publikoekin dituzten harremanetan. Horrez gain, langileek, beren eginkizun profesionalak garatzean, ezarritako barne-kontrola betetzen dela zainduko dute, Anesvaden eta hirugarrenen arteko harremanetan irregulartasunak eta abantaila bidegabeak saihesteko.

Ordainketa/kobranta irregularrak eta kapitalak zuritzea

Anesvadek politika bereziak ezartzen ditu bere eragiketetan, legez kontrako edo delituzko jardueretan jatorria duten kapitalak zuritzea edo ordainketa zein kobratze irregularrak egitea prebenitu eta saihesteko. Politika horiek kontrol espezifikoak ezartzen dituzte transakzio ekonomikoen gainean, hau

da, kobrantza zein ordainketen gainean, areago, ezohiko izaera edo zenbatekoa izanik esku-dirutan zen eramaile-txekeekin egiten direnean, baita paradisu fiskaletan irekitako banku-kontuak dituzten erakundeek egindako ordainketa edo kobrantza guztietan ere, kasu guztietan haien titulartasuna identifikatuko delarik. Anesvadeko langileak erne egongo dira Anesvadekin harremanetan dauden pertsona edo entitateen integritatea kolokan egon litekeenaren zantzuak daudenean.

Anesvaden transakzio ekonomikoak argitasunez justifikatu eta zehaztasunez islatuko dira dagozkien erregistroetan kontabilitate-kontuen bitartez, baita egindako eragiketa eta diru-sarrera eta gastu guztiak ere. Anesvadeko langileek alde batera utziko dituzte Anesvaden kontuetan transakzio guztiak argitasunez eta zehaztasunez islatzeko konpromisoaren aurka doazen jardunbide guztiak.

Erakundearen irudia eta ospea

Anesvaden iritiz, bere jarduera garatzen duen tokietan errespetuzko eta ardurazko harremanak ezartzea da erakundearen irudiari eta ospeari mesede egiteko giltzarrietako bat. Anesvaden iritiz erakundearen izena eta ospea oso garrantzitsuak dira bere interes-taldeek daukaten konfiantzari eusteko. Anesvad osatzen duten pertsona guztiak ahalik eta kontu handienarekin ibili behar dute bere jardun profesional guztietan Anesvaden irudia eta ospea babesteko. Ildo beretik, hornitzaile eta entitate kolaboratzailetako langileek erakundearen irudia eta ospea errespetatzea eta zuzen eta egoki erabiltzea zainduko dute. Anesvad osatzen duten pertsona guztiak kontu handiz ibili behar dute beren esku-hartze publikoetan, eta komunikabideen aurrean esku hartzeko, jardunaldi profesional edo mintegietan eta jendaurreko zabalkundea izan dezakeen beste edozein ekitalditan (sare sozialetako komentarioak barne) parte hartzeko behar den baimena eduki behar dute, betiere Anesvadeko profesional gisa agertzen badira.

Anesvadek ez ditu alderdi politikoak edo haien ordezkariak finantzatzen, bere jarduerak garatzen dituen herrialdeetan. Langileak alderdi politikoekin lotzen badira edo kolaboratzen badute, modu pertsonalean egingo dute, Anesvaden jardueretatik guztiz aparte.

Merkataritza-publizitateari dagokionez, Anesvadek une oro errespetatuko ditu nazioarteko lankidetzan diharduten gobernu kanpoko erakundeek kode etikoak, baita ondare-kudeaketarekin zerikusia duten jokabide- eta etika-kode eta printzipioak ere.

Leialtasuna erakundearen eta interes-gatazken aurrean

Interes-gatazkak agertzen dira, Patronatuaren, Aholku Kontseiluaren eta langileen interes pertsonalak, zuzenean edo zeharka, Anesvaden interesen aurka doazenean edo haiekin talka egiten dutenean, haien betebeharrak eta erantzukizun pertsonalak betetzean nahasten direnean edo Anesvaden transakzio edo eragiketa ekonomiko batean modu pertsonalean lotzen dituztenean. Anesvaden iritiz erakundea osatzen duten pertsonen arteko harremanak leialtasunean oinarritu behar du, hain zuzen ere, interes komun batzuetatik sortzen den leialtasunean. Ildo horretan, Anesvadek errespetatzen du beste finantza- edo enpresa-jarduera batzuetan parte hartzea, betiere legezkoak badira eta Patronatu gisa edo Anesvadeko langile gisa dauzkaten erantzukizunekin lehia desleialean sartzen ez badira edo talka egiten ez badute.

Bere erantzukizun profesionalean jardutean, langileek leialtasunez jokatu behar dute, Anesvaden interesen defentsaren alde. Horrez gain, interes pertsonalen eta Anesvaden interesen artean gatazkaren bat ekar dezaketen egoerak saihestu behar dira. Horregatik, Anesvad osatzen duten pertsonak ezin dute Anesvad ordezkatu edo erabakiak hartzean esku hartu edo eragin, zuzenean edo zeharka interes pertsonalen bat duten edozein egoeratan.

Informazioaren eta ezagutzaren tratamendua

Anesvadek uste du informazioa eta ezagutza direla bere kudeaketarako aktibo nagusietako eta

ezinbestekoetako bat, eta, horregatik, bereziki babestu beharrekoak direla. Informazioaren egiazkotasuna bere jardun guztien oinarritzko printzipioa dela adierazten du, eta, beraz, erakundea osatzen duten pertsonak jakinarazi beharreko informazioa egiazkotasunez transmititu behar dutela, barruan zein kanpo aldera, eta inoiz ere ez dutela zuzena edo zehatza ez den informazioaren bat emango, baldin eta, jakinaren gainean egonik, hartzailea oker egitera eraman badezake. Anesvaden sistema informatikoetan edonolako informazioa sartzen duten langile guztiek, informazio hori zorrotza eta fidagarria dela zaindu behar dute.

Anesvad osatzen duten pertsonak konfidentziasunetik zorrotzera gorde behar dute beren jardura profesionalean jardutearen ondorioz eskuragarri dituzten informazio erreserbatu guztien inguruan. Anesvaden gainean edo Anesvaden estrategia, politika, plan edo aktiboen gainean informazio erreserbatua duten langileek ongi babestu beharko dute inork behar ez bezala erabil ez dezan, eta ez dute behar ez bezala erabiliko norberaren edo hirugarrenen mesedetan. Informazioaren izaeraren gaineko edozein zalantza aurrean, langileek erreserbatutzat joko dute informazioa, kontrakoa adierazten ez zaien bitartean.

Anesvadek sustatzen du Anesvaden sortzen den informazioa eta ezagutza arintasunez elkartrukatzea bere langile eta antolamendu-unitate guztien artean, jardueren kudeaketa errazteko, xede soziala betetzeko eta pertsonen garapena indartzeko. Anesvaden esparruan sortzen den informazio eta ezagutza guztia Anesvaden jabetzakoa da, eta ezagutza diogunean, hainbat informazio integratzearen ondoriozko emaitza esan nahi dugu. Langileek Anesvaden ezagutza babestu behar dute Anesvadeko beste pertsona batzuegana zabaltzeko bidea erraztuz, eta ezagutza kudeatzeko asmoarekin erakundearen gaitzen diren sistemen eskura jarritz.

Anesvadek indarreko legea betetzen du datuak babestearen alorrean, intimitaterako eskubidea errespetatuz eta bere dohaintza-emeleek, langileek, kanpoko laguntzaile eta hornitzaileek, hautaketa-prozesuetako hautagaiek edo beste pertsona batzuek emandako datu pertsonalak babestuz.

Beren eginkizunetan jardutean izaera pertsonaleko datuetan sartzen edo haien tratamenduan parte hartzen duten Anesvadeko kide guztiek horren inguruan indarrean dagoen legeria bete beharko dute, eta Anesvadek haien segurtasuna bermatzeko ezartzen dituen neurri tekniko eta antolamenduzkoak eta jarraibideak aplikatu beharko dituzte.

Oro har, Anesvad osatzen duten pertsona guztiek zorrotztasunez ezarri beharko dituzte informazioaren segurtasunari dagokionez erakundeak erabakitzen dituen neurriak.

Anesvad osatzen duten pertsona guztiek erakundearen eta besteren jabetza intelektuala babestu behar dute, besteak beste, patente, marka eta domeinu-izenen gaineko eskubideak; erreproduktzio-eskubideak (softwarearen erreproduktzio-eskubideak barne); diseinuen eskubideak; eta datu-baseak erauzteari edo ezagutza tekniko espezializatuari buruzko eskubideak. Hirugarrenetik harremanetan, gai horretan indarrean dauden arau eta prozedurak beteko dira zorrotzki, hirugarrenen eskubideen urraketa saihesteko.

Portaera bidaietan

Anesvaden jarduerak hainbat lekutara bidaiak eta bisitaldiak egitea dakar berekin, eta horregatik jokabide- eta jardun-jarraibide espezifiko batzuk ezarri behar dira bidaiak eta bisitaldi horietarako. Bereziki garrantzitsua da jarraibide horiek betetzea esku-hartzearen eraginpeko herrialde eta lurraldeetan egiten diren bidaiak eta bisitaldietan. Leku horietan bereziki, Anesvadeko langile edo ordezkariak sentikortasun eta errespetu are handiago bat erakutsiko dute, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonekin batez ere.

Bidaiatzen duten pertsonak bertako herritarrak errespetuz tratatuko dituzte, haien ohitura eta tradizioak aintzat hartuz eta pertsonen eskubideekiko errespetua babestuz. Edozein pertsonarekin ezartzen diren harreman profesional zein pertsonaletan, jazarpen edo abusu fisikoa, psikologikoa, sexuala, sexista, arrazista, morala edo agintekeria dakarren edozein jokabide saihestuko da, baita pertsonetikiko larderiako ingurune edo ingurune iraingarri bat ekar dezakeen beste edozein jokabide ere, jardunbide agresibo eta biolento guztiak baztertuko direlarik, non eta legezko defentsarako ez diren. Horren barnean hartzen da prostituzioan diharduten pertsonekin sexu-harremanak izateko debekua.

Debekatuta dago legezkoak ez diren drogak eduki edo kontsumitzea, baita edonolako drogen trafikoa ere. Hortaz, debekatuta dago drogen eraginpean jardutea, bai jarduera profesionalean aritzean, bai hartatik kanpo. Alkohola neurrian kontsumituko da, eta ezin izango du inoiz pertsonaren jokabidea aldarazi edo jarduteko gaitasuna murriztu, jarduera profesionalean aritzean zein jardun horretatik kanpo.

Edozein ibilgailu gidatzea debekatuko da, motozikletak barne (tokiko bazkideen ibilgailuak, txoferrik gabeko ibilgailuen alokairua, edozein kontaktuk utzitakoa), erakundeak ezagututako eta baimendutako salbuespenetan izan ezik (beste alternatibarik ez dagoenean edo segurtasun-arrazoi nabariengatik egin behar denean). Muturreko kasu batean edonolako ibilgailuren bat erabili beharko balitz, herrialdeko zirkulazio-arauak errespetatu beharko dira. Ibilgailua gidatzean behar den zuhurtziarekin jokatu behar da, eta norberaren eta beste osotasuna arriskuan ez jartzeko behar diren segurtasun-neurriak hartuz. Erabat debekatuta dago edozein ibilgailu gidatzea alkoholaren eraginpean edo legez kontrakoak diren edo segurtasunez gidatzeko gaitasuna mugatzen duten drogen eraginpean.

Oro har, bidaiatzen duten pertsonak segurtasunari eta osasunari buruzko barne-araudia errespetatu eta ezarri beharko dute.

Ikus-entzunezko edozein produktu lortu behar denean (argazkiak, bideoak, audioak, etab.), Kode honetan jasotakoa errespetatuz egingo da une oro, bereziki pertsonen eskubideak babestearekin eta pertsonen intimitatearen eta duintasunaren alorreko betebeharrekin zerikusia duen guztian.

Austeritateak gidatuko du portaera une oro, eta gauden herrialdeko egoera ekonomiko eta sozialaren aldean jarrera arranditsuak eta harroak saihestu beharko dira. Oro bat, ezin izango da opari nabarmenagirik edo sari ekonomikorik onartu. Erakundea ordezkatzeko ekitaldietan, janzkera egokia erabiliko da, egin beharreko topaketa motarekin bat etortzeko modukoa.

Dohaintza-emailekiko harremanak

Dohaintza-emailek ezinbesteko eta funtsezko oinarri bat osatzen dute Anesvaden helburuak betetzeko. Hortaz, Anesvad osatzen duten pertsona guztiek integritatez jardun behar dute beren dohaintza-emailekin, haiekin hartutako konpromisoak betetzeko helburuarekin, eta, epe luzera begira, konfiantzan eta errespetuan oinarritutako harremanak garatuz.

Dohaintza-emailei ematen zaien informazioak edo aholkularitzak nahikoa, egiazkoa, bidezkoa eta egokia izan behar du beti. Dohaintza-emailei ezin izango zaizkie, inondik inora, okerrak edo anbiguoak diren edo oso zorrotzak ez diren informazioak eman, beren dohaintzen gainean oker egitera edo okerreko erabakiak hartzera eraman ditzaketen neurrian.

Entitate laguntzaile eta hornitzailekiko harremanak

Anesvaden iritziz bere hornitzaile eta entitate laguntzaileak funtsezkoak dira bere helburuak lortzeko, eta horregatik bilatzen du haiekin konfiantzan eta elkarri mesede egitean oinarritutako harremanak ezartzea. Anesvadek bere gain hartzen du, bere hornitzaile eta kanpo-laguntzaileekin, Kode Etiko

honetan jasotako jokabide-arauekin bat datozen jardunbideak sustatzeko konpromisoa, kontratubaldintzak betetzeari utzi gabe. Zirkunstantziak hori eskatzen badute, Anesvadek bere hornitzaile eta enpresa laguntzaileei eskatu ahalko die Kode honen xedapenekin bat egiteko eta espresuki betetzeko konpromisoa.

Hornitzaile eta kanpo-laguntzaileak hautatzeko prozesuetan parte hartzen duten Anesvadeko Patronatuak eta langile guztiek, inpartzialtasunez eta objektibotasunez jardun behar dute une oro, austeritate- eta gardentasun-irizpideak ezarriz, eta gai horri dagokion barne-araudiarekin bat etorriz, zorrotz eta salbuespenik gabe. Horrez gain, Anesvadek bere hornitzaile eta kanpo-laguntzaileei eskaintzen die Anesvaden Batzorde Etikora konfidentzialtasunez, fede onez eta errepresalien beldurrik gabe jotzeko aukera, Anesvadeko langileen jardunbideak Kode honetan ezarritakoarekin bat ez datozela ulertzen dutenean. Anesvaden eta haren hornitzaile edo entitate laguntzaileen artean ezarritako akordioen barruan daude, besteak beste, estandar etiko, sozial eta ingurumeneko jakin batzuk betetzearekin zerikusia duten printzipioak onartzea.

Ingurumenarekiko errespetua

Ingurumena zaintzea da Anesvaden jardunaren printzipioetako bat. Horrekin bat etorriz, Anesvadek ingurumena kudeatzeko politika bat garatuko du, eta kudeaketa-sistema bat ezarriko du. Anesvad osatzen duten pertsonen politika hori ezagutu eta onartu beharko dute, eta inspiratzen dituen errespetu- eta jasangarritasun-irizpideei jarraikiz jardungo dute une oro, ingurumen-jarduera egokiek zerikusia duten ohitura eta jokabideak hartuz ezarritako helburuak lortzeko ekarpen positibo eta eraginkorrak egitearren.

Orobat, langileak ahaleginduko dira ahalik eta ingurumen-inpakturik txikiena eragiten beren jardueretan eta beren eskura jarritako instalazio, ekipo eta lan-baliabideak erabiltzean, modu efizientean erabiltzen saiatuz. Hornitzaileekiko edo kanpo-enpresa laguntzaileekiko harremanetan, Anesvadeko langileek printzipio horiek emango dituzte aditzera, eta ingurumenaren alorrean unean-unean aplikatzekoak diren prozedura eta betekizunak betetzea exijituko dute.

Kodea onartzea eta betetzea

Anesvad osatzen duten pertsona guztiek Kode hau bete behar dute nahitaez, baita beren borondatez Kodea betetzeko konpromisoa hartu duten hirugarren guztiek ere. Anesvadek Kode honen edukia jakinarazi eta zabalduko du bere langile guztien artean eta informazio hori garrantzitsutzat jotzen duten hirugarrenen artean.

Anesvad osatzen duten pertsonen Kodea betetzeko konpromiso formala hartu behar dute, erakundean alta hartzen dutenean eta Anesvadek egokitzen jotzen dituen gainerako zirkunstantzia guztietan. Horrez gain, aldian behin Anesvadek dagokionari eskatuko dio Kodean ezarritako jokabide-jarraibideak ezagutzen eta betetzen dituela frogatzeko, eta, egokitzen jotzen bada, Kodearen gai guztiei buruzko prestakuntza-saioak egingo ditu.

Anesvadek espero du bere kide guztiek konpromiso-maila handia erakustea Kode hau betetzeari dagokionez. Anesvad osatzen duten pertsona guztiei ebaluazioa egin dakieke beren betetze-mailaren arabera. Ez-betetzeak aztertuko dira barne-prozeduren, lege-araudiaren eta indarreko hitzarmenen arabera, eta bidezkoak diren zehapenak ezarriko dira betiere.

Kode hau interpretatu edo ezartzean sor daitekeen edozein zalantza, departamentuko arduradunekin, Zuzendaritza Nagusiarekin, edo, bidezko bada, Batzorde Etikoarekin kontsultatu ahalko da.

Anesvaden duen posizioa gorabehera, inork ere ez dauka baimenik erakundea osatzen duten pertsonen Kode honetan ezarritakoaren aurka jardun dezatela eskatzeko. Pertsona horietako batek ere ezin

ditzake ez-betetzeak edo jokabide bidegabeak justifikatu goragoko agindu bat edo Kode honen berri ez izatea aitzakiatzat hartuta.

Kodearen ez-betetzeek arriskuan jar lezakete Anesvaden ospe ona, eta haren sendotasuna kolokan jar lezakete. Horregatik, Anesvad osatzen duten pertsona guztiak behartuta daude beren nagusi hierarkikoari edo Batzorde Etikoari informatzera, beren jardura profesionalen barruan zein kanpoan ikus dezaketen edozein ez-betetzeren edo jardunbide desegokiren berri emanez.

Indarraldia

Kodea argitaratzen den egunean hasten da indarrean langile guztientzat, eta haren deuseztapena onartu arte egongo da indarrean. Patronatuak aldi behin berrikusi eta eguneratuko du Batzorde Etikoaren proposamenari jarraikiz, eta azken horrek kontuan hartuko ditu horretarako langileek egindako iradokizun eta proposamenak eta Anesvadek gobernu onaren alorrean hartutako konpromisoak.

Etika eta Jokabide Kodea aplikatzeko barne-prozedura

1. Kodea aplikatzeko eremua

Anesvaden Kodeak **Anesvad osatzen duten pertsona guztiak** ditu helburu (**Patronatua, Aholku Kontseilua, Zuzendaritza Batzordea, eta, oro har, Anesvadeko langile guztiak, boluntario-lanak egiten dituzten pertsonak barne**), betetzen duten posizioa edo diharduten lekua edozein izanik ere. Bestetik, Anesvadek bultzatu egingo du, bere hornitzaile eta entitate laguntzaileen artean, portaera-jarraibideak hartzea Kode honetan definitutakoen ildo beretik.

Kode hau nahitaez aplikatzekoa da, halaber, Anesvad osatzen duten pertsonak egiten dituzten bidaietan eta bidaia horietan ezartzen diren harremanetan, bereziki jardunaren eraginpeko pertsona eta komunitateekin eta toki-bazkide laguntzaileekin ezartzen direnetan.

Oro har, Anesvadek bere hornitzaile, pertsona eta entitate laguntzaile eta toki-bazkideei eskatuko die Kode hau edo Kodeak ezarritako jarraibide espezifikoak betetzeko konpromisoa har dezaten, garatzen duten jardueraren arabera. Halaber, Anesvadekin lotutako edozein pertsona edo erakunderi ere ezar diezaiolke Kodea Anesvadek, egokitzen jotzen duenean eta harremanaren izaerak ahalbidetzen duenean.

2. Prozesuan sartutako pertsona eta organoak

Batzorde Etikoa

Batzorde Etikoa organo iraunkor bat da, erabakirik hartzen ez duena, bere zaintzako, kontsultako, gomendatzeko eta ekiteko eginkizunetan independentziaz diharduena eta honako helburu hauek dauzkana:

- Kodea eta Kodearekin zerikusia duten protokolo, politika eta prozedurak zabaldu, ezagutarazi eta betetzeko bidea erraztea.
- Kodea eta Kodearekin lotutako protokolo, politika eta prozedurak interpretatzea, eta jardunak bideratzea.
- Interes-talde guztientzat komunikatzeko bide bat gaitu eta kudeatzea, baita salaketa zein kontsultak egiteko edo Kodearen ez-betetzeak jakinarazteko kanal bat ere.
- Kodearen aplikazioarekin lotutako salaketa eta gatazkak ebazteko prozesua kudeatzea.
- Anesvaden Patronatuarentzat eta dagokionarentzat txostenak egitea, Kodea ez-betetzearekin zerikusia duten gertaeren gainean, horren gainean egindako salaketa eta ekintzak barne.
- Anesvaden Patronatuarentzat txostenak egitea Kodearen zabalkundearen eta betetzearen inguruan, baita Batzordearen jardueren gainean ere, egunean edukitzeko, edukia hobetzeko eta bereziki aintzat hartzekoak diren alderdi horien guztien gaineko aplikazioa errazteko bidezkoak diren gomendio edo proposamenak landuz.

Batzorde Etikoa 5/6 pertsonaz osatuta egongo da, Patronatuak izendatuko dituenak, Zuzendaritzak, borondatezko hautaketa-prozesu ireki bat burutu ondoren egindako proposamenari jarraikiz. Bi urtean behin organo horren osaera berrituko da, hainbat pertsonak hartan parte har dezatela bermatzeko helburuarekin. Patronatutako eta Zuzendaritza Batzordeko pertsonak eta gainerako langileek osatuta egongo da. Organo hori eratzeke lehen bileran, kideek beren artean hautatuko dute Batzordean urtebetez zeregin horren ardura hartuko duen pertsona, eta ardura hori beste urtebetez luzatzeko aukera izango da baldin eta Batzordeak egokitzen ikusten badu.

Batzorde Etikoa osatzen duten pertsona guztiak gutxienez urtean behin bilduko dira, azaroan, Kodea bete eta aplikatzeko urteko txostena adostu eta idazteko. Horrez gain, zirkunstantziak hala eskatzen badute Kodearen aplikazioaren ondoriozko jardueraren arabera, Batzorde Etikoa bilduko da, izan litezkeen ez-betetze eta salaketak kudeatzeko egoki eta beharrezko ikusten duen bakoitzean.

Kode honen salaketa edo ez-betetze bat kudeatzean Batzorde Etikoa osatzen duen pertsona baten edo batzuen interes-gatazka izan daitekeenean, interes-gatazkak kudeatzeko politikan jasotako aplikazio-prozeduran ezarritakoari jarraikiz jokatu da.

Batzorde Etikoak Anesvaden Zuzendaritza Batzordeari eta Patronatuari emango die bere kudeaketa eta proposamenen berri, erabakiak hartzeko eta onartzeko.

Anesvad osatzen duten pertsona guztiak

Anesvad osatzen duten pertsonak Kodea aplikatu behar dute, honako hauek betez:

- Anesvaden Kodea eta Kodearekin lotutako protokolo, politika eta prozedurak ezagutu eta aplikatzea.
- Dagozkien interes-taldeen artean zabaltzea, eta, beharrezkoa denean, harpidetzea eta sinadura bermatzea.
- Kodearen eta pertsonen duintasunen aurka doazen ez-betetze edo ekintzak salatzea.

Zuzendaritza Batzordea

Horrez gain, Zuzendaritza Batzordeko kideek honako hauek bete beharko dituzte:

- Erreferenteak eta eredugarriak izatea Kodearen eta Kodearekin lotutako protokolo, politika eta prozeduren aplikazioan, eta horiek guztiak betetzen direla zaintzea.
- Kodearen jarraibide eta printzipioak eta Kodearekin lotutako protokolo, politika eta prozedurak betearaztea.
- Kodearen eta Kodearekin lotutako protokolo, politika eta prozeduren ez-betetzeen gaineko eta jasotako salaketen gaineko erabakiak hartzea. Patronatuak horien aplikazioa onartzen du.
- Kodean, Kodearekin lotutako protokolo, politika eta prozeduretan eta haien aplikazio-mekanismoetan aldaketak erabakitzea. Patronatuak horien aplikazioa onartzen du.
- Anesvaden Batzorde etikoan parte hartzea.

Patronatua

Patronatua osatzen duten pertsonak, aurrekoa ez ezik, honako hauek ere egin ditzakete:

- Aplikatu beharreko kautelazko eta diziplinazko neurriak onartzea, baita, hala dagokionean, agintarientzako salaketak ere.
- Kodean, Kodearekin lotutako protokolo, politika eta prozeduretan eta haien aplikazio-mekanismoetan aldaketak erabakitzea.
- Anesvaden Batzorde Etikoaren osaera onartzea.

3. Etika- eta jokabide-kodearen ez-betetzeak identifikatzea

Anesvadekin harreman profesionala duten pertsona guztiak informatu behar dute beren jardura profesionalean jardutean ikus lezaketan Kodearen edozein ez-betetze edo urraketaren inguruan. Kodearen ez-betetze baten berri izanik hura ez salatzeak Anesvaden zigorrak ekar ditzake berekin, baita eraginpean egon litekeen beste edozeinen aldetik ere.

Anesvadek Batzorde Etikoak gainbegiratutako kanal formal eta konfidentzialak ezarri ditu, edozeinek fede onez eta errepresalien beldurrik gabe, Kodean ezarritakoaren ez-betetzeen gaineko komunikazioak, kontsultak edo salaketak egiteko aukera izan dezan.

Kasu guztietan konfidentziasuna gordeko da salaketa egiten duen pertsonaren, salatutako pertsonaren eta esku hartzen duten hirugarrenen inguruan, baita ez-betetze baten kudeaketan eta/edo ikerketa bat bideratzean ematen eta sortzen den informazioaren inguruan ere, egoerak hala eskaturik, pertsona horiek agintarien aurrean identifikatu behar direnean izan ezik. Salatutako gertaera guztiak erabateko inpartzialtasunez ikertuko dira.

Izan litezkeen arau-hausteen gainean edo haien ikerketan laguntzen duen edozein pertsonak ez du inolako kalterik pairatuko, salbu eta hasiera-hasieratik baldin bazekien emandako informazioa gezurrezkoa zela, edo fede txarrez jarduten badu beste pertsona batzuei kalterik eragiteko asmoarekin.

Une oro lehentasunezkoa da edonolako jazarpen- eta abusu-egoerak edo beren funtsezko eskubideen urraketak paira ditzaketen pertsonen babesa, laguntza eta defentsa eskaintzea.

4. Salaketen kanala

Anesvadek Batzorde Etikoak gainbegiratutako kanal formal eta konfidentzialak ezarri ditu, edozeinek fede onez eta errepresalien beldurrik gabe, Kode honetan ezarritakoaren ez-betetzeen gaineko komunikazioak, kontsultak edo salaketak egiteko aukera izan dezan.

Kodearen eta lotutako prozedura, politika eta salaketen ez-betetze bat aditzera emateko lehentasunezko bide nagusia, Anesvaden webgunean kokatutako "Salaketen kanala" izango da, Anesvad osatzen duten guztiek eta haren interes-taldeen edozeinek erabili ahalko dituztenak: onuradunak, dohaintza-emaileak, hornitzaileak, entitate aliatuak eta abar.

Kontuan hartzekoa da salaketa batek berekin dakarrela Anesvad osatzen duten pertsonen artean batek edo batzuek egindako edozein ekintza legez kontrakoa, irregularra edo desegokia dela adieraztea.

Salaketa-kanalari eusten dioten printzipioak

Irisgarritasuna: salaketa-kanala argia izango da, iristeko erraza, xede horretarako ezarriko den eta Anesvaden webgunearen bitartez jendaurrean jarriko den tresna baten bitartez.

Gardentasuna: Etika- eta jokabide-kodea, hura aplikatzeko prozedura eta salaketa-kanala publikoak izango dira. Gainera, posible denean eta informazio eta datu pertsonalen konfidentzialtasuna babestuz, Batzorde Etikoaren jardura jendaurrean jarriko da.

Fede ona: salaketak modu anonimoan egiteko aukera izango da. Nolanahi ere, salaketaren jarraipen egokia egin ahal izateko, informazioa eskatuko da salatzailearekin harremanetan jarri ahal izateko, eta hark erabakiko du informazio hori ematea edo salaketa modu anonimoan egitea.

Salatzailea anonimoa ez bada, Anesvadek bermatzen du ez duela inolako diziplina-neurririk hartuko edo lege-ekintzarik abiatuko fede oneko salaketa bat jartzen duenaren kontra. Aldiz, Anesvadek egokitzat jotzen dituen ekintzak abiarazteko eskubidea dauka, salaketa bat fede txarrez egin dela egiaztatzen duenean.

Anesvadek edozein langileren edo Anesvaden Patronatuko edozein kideren aurkako lege- edo diziplina-ekintzak abiaraz ditzake, baldin eta errepresaliaren bat hartzen badu fede oneko salaketa bat egin duenaren aurka.

Konfidentzialtasuna: salaketa batekin zerikusirik duten pertsonen nortasuna informazio konfidentzialtzat joko da. Nolanahi ere, pertsona horien datuak dagozkien agintarien eskura uzteko aukera izango da, baldin eta salaketaren xedetik eratorritako edozein prozeduraren ondorioz eskatzen badira. Datuak agintari administratibo edo judizialei lagako zaizkie, betiere, datu pertsonalen babesaren gaineko legeria erabat betez.

Objektibotasuna eta inpartzialtasuna: behin salaketa bat jaso ondoren, salaketaren xede diren pertsonen intimitaterako, defentsarako eta errugabetasun-presuntziorako eskubidea bermatuko da.

Batzorde etikoa da salaketak jasotzeko eta kudeatzeko izendatutako organoa. Pertsona horiek Patronatuaren edo bidezkoak diren agintarien esku utzi ditzakete salaketa horiek, baldin eta jasotako salaketaren batek interes-gatazka bat ekar badezake berekin.

Efizientzia: eskaera guztiak ahalik eta lasterren tramitatuko dira. Nolanahi ere, honako kasu hauetan Anesvadek erantzun bat ez emateko eskubidea izango du:

- a. Datu konfidentzialen eskaerak: legeek araututako datuen edo tartean sartutako pertsona eta erakundeen datuak babestea eskatzen duten akordio pribatuetan eragina duten datuen kasuan.
- b. Asmo txarreko eskaerak, fede oneko irizpidea argi eta garbi urratzen dutenak edo edukiagatik edo formagatik errespeturik gabeak direnak. Komunikazioa fede txarrez aurkeztu denaren arrazoirik edo zantzurik dagoenean, haren jarraipena egiteari ezezkua emango zaio, eta igorleari emango zaio ezezko emate horren arrazoi berri. Anesvadek pertsona horren aurka diziplinazko edo bestelako neurriak hartzeko eskubidea izango du.

Prozedura

Sarbidea: Anesvadek salaketa-kanal bat gaitu du salaketak kudeatzeko, eta webgunetik sar daiteke

bertan. Patronatuak izendatutako Batzorde etikoak soilik izango du tresna horretan sartzeko aukera salaketak kudeatzeko xedearekin, eta jasotako informazio guztia konfidentziasunez tratatzeko konpromisoa hartzen du.

Informazioaren kudeaketa: jasotako salaketen erregistro bat egingo da, non salaketari esleitutako kodea, jasotze-data, jasotako informazioa eta erantzunaren data adieraziko diren, baita ondoren egindako edozein jarraipen ere.

Azterketa eta ebazpena:

- a. Batzorde etikoak salaketak jasotzen ditu, eta informazio-eskaerak edo salaketak ez diren edo Etika eta Jokabide Kodearekin zerikusirik ez duten gainerakoak bidaltzen dizkie Anesvaden administrazio-arloei, ebatz ditzaten.
- b. Salaketen kasuan:
 - Batzorde etikoak bere gain hartuko du jasotako salaketaren gaineko ikerketa egiteko ardua, eta horretarako, egokitzat jotzen dituen pertsona guztiak deitzeko eta elkarrizketatzeko aukera izango du, ondorio objektiboak ateratzeko helburuarekin.
 - Ikerketa-tramitearen barnean hartuko da, gutxienez, elkarrizketa pribatu bat salatutako jokabidearen ustezko arduradunarekin.

Behin ikerketa amaiturik, lortutako ondorioei buruzko txosten bat egingo da. Anesvaden Patronatuari eta Zuzendaritza Batzordeari emango zaie txosten horren berri, eta, hala badagokio, baita salaketa ez-anonimoa egin zuen pertsonari ere.

Behin txosten hori aztertuta, egokiak diren diziplina-neurriak edo zigorrak ezartzeko aukera izango da. Delitu bat dakarten kasuetan, dagozkion agintariei emango zaie horren berri.

Eskaera guztien tramitazioa ahalik eta lasterren egingo da, eta gehienez 30 eguneko epea ezarriko da horiei erantzuteko. Edozein arrazoirengatik epe horretan erantzunik bidaltzeko modurik ez badago, interesdunari jakinaraziko zaio bere eskaera indarrean dagoela, eta beste epe bat eskainiko zaio.

Agintarien aurrean diziplinazko erregimena eta/edo salaketak aplikatzea.

Kode hau betetzen ez bada, ez-betetzea aztertuko da, eta, hala badagokio, zigorra ezarriko zaio, barne-prozedurekin, hitzarmenekin eta indarreko lan-araudiarekin bat etorritzat. Intentzionalitate-mailak, errepikapenak eta eraginpeko pertsonengan eta Anesvaden interesetan, ospean eta legezketasunean eragindako inaktuak baldintzatuko dute hutsegitearen larritasuna.

Oso hutsegite larritzat joko dira, besteak beste, debekatuta dagoen eta/edo Kodean jasotako jokabideen aurkakoa den portaera oro, baldin eta Anesvaden pertsona eta/edo interesen duintasunaren, ospearen eta legezketasunaren aurka badao. Horiek aurkitzeko lana galarazteko edo zailtzeko lagungarri diren jokabideak eta detektatutako ez-betetzeak jakinarazteko betebeharrak espezifikoa urratzea ere hutsegite larritzat joko dira.

Boluntario, hornitzaile, dohaintza-emaitza, enpresa laguntzaile eta entitate aliatuen kasuan, betiere lotuta egon litezkeen arriskuak desagerrarazteko ekintza-planik ez badago, bi alderdien arteko lotura-harremana bertan behera utziko da, alderdien artean sinatutako kontratu edo hitzarmen formaletan aintzat hartu beharreko arrazoi justifikatu gisa.

Oso hutsegite larri bat ekarriko luketen jokabideen eta/edo ikerketa judizialeko prozesuan dauden jokabideen gaineko susmo sendoak badaude, Anesvadek loturaren kautelazko etetea agintzeko aukera izango du Patronatuko, Aholku Kontseiluko eta Zuzendaritza Batzordeko kideen kasuan, edo eginkizunen berresleipena gainerako langile eta boluntarioentzat, izan litezkeen arriskuak arintzeko helburuarekin.

Anesvadek eskubidea dauka inplikaturako pertsona fisikoaren eta/edo juridikoaren aurka egokitzat jotzen dituen legezko ekintzak abiarazteko, baita asmo txarreko salaketa baten igorlearen aurka ere. Ildo horretan, Anesvadek dagozkion agintarien aurrean salatuko ditu Kode hau bete behar duten pertsonak egindakoak baldin eta delituzkoak izan daitezkeela uste badu, biktima izan daitezkeen askatasunak, eskubideak eta babesa une oro lehenetsiz.

Etika- eta jokabide-kodearen aplikazioaren jarraipena eta azterketa

Batzorde etikoak Kodearen aplikazioaren jarraipena egiten du, jasotzen dituen kontsulta, iradokizun eta salaketetan eta horien kudeaketan oinarrituta.

Urtero azaroan jasotako salaketetatik abiatuta idatz daitezkeen txosten espezifikoez gainera, Batzorde etikoak txosten bat idatziko du Anesvaden Patronatuarentzat eta dagokionarentzat, Kodea ez-betetzearekin zerikusia duten gertaeren gainean, horren gainean egindako salaketa eta ekintzak barne. Halaber, txostenean informazioa jasoko da Kodearen zabalkundearen inguruan, baita Batzorde etikoak gara ditzakeen jardueren gainean ere, egunean edukitzeko, edukia hobetzeko eta bereziki aintzat hartzekoak diren alderdi horien guztien gaineko aplikazioa errazteko bidezkoak diren gomendio edo proposamenak landuz.

Informazio horrekin, Patronatuak, abenduko bileran, egoera aztertuko du dagokion erabakia hartzeko.

1. eranskina - Webguneko pribatutasun-politika (salaketen kanala)

Salaketa-kanalaren bitartez salaketa bat aurkezteak, pribatutasun-politika erabat eta inolako erreserbarik gabe onartzea dakar berekin <https://fundacionanesvad.intedyacloud.com/canal-denuncias/politica-privacidad.php>

Salaketa bat egiten duten pertsonak bermatzen dute emandako datu pertsonalak egiazkoak, zehatzak eta osoak direla eta eguneratuta daudela, eta guri horietan gertatzen den edozein aldaketaren berri emateko konpromisoa hartzen dute.

Oro har, nahitaezko gisa adierazitako formulario-eremuak nahitaez bete beharko dira, salaketak tramitatu ahal izateko.

Zure datuen tratamenduaren arduraduna: Anesvad eta haren Batzorde Etikoa dira salaketa eta ikerketetik lortutako informazioa tratatzeko arduradunak (Henao kalea 29-31 1. 48009 BILBO)

Anesvaden Batzorde Etikorekin harremanetan jartzeko: comisionetica@anesvad.org

Anesvaden Datuak Babesteko Delegatuarekin harremanetan jartzeko: rgpd@anesvad.org

Datuen tratamendua: Salaketa-kanalarekin egindako salaketa edo ikerketetik lortutako datuak tratatuko dira salatutako gertaerak ikertzeko, eta Anesvaden Etika eta Jokabide Kodearen arau-haustea egiteko aukera prebenitzeko.

Zure datuen komunikazioa: Oro har, Anesvaden Batzorde Etikoa osatzen duten pertsonak soilik sartuko dira informazio horretan, hura baita salaketa-kanal hori kudeatzeko arduraduna.

Informazio hori hirugarrenei jakinaraziko zaie, soil-soilik, salatutako gertaerak ikertzeko edo zigortzeko ezinbestekoa denean, lege batek hala aurreikusten duenean edo eraginpeko pertsonak aldeztu aurretik baimena ematen dutenean.

Salaketa egin duenaren nortasuna ezkutuan gordeko da prozesuko etapa guztietan, eta bereziki, hirugarrenei ez zaie jakinaraziko, nahiz eta haren nagusi hierarkikoak edo salaketan inkriminatutako pertsona izan. Hala eta guztiz ere, jakinarazten da litekeena dela nortasun hori jakinarazi behar izatea ikerketetan edo egindako ikerketaren ondorioz irekitako prozesu judizialean sartuta dauden garrantzizko pertsonen.

Nolanahi ere, ikerketetan sartutako pertsona guztiek konfidentzialtasun-akordio bat sinatu beharko dute emandako laguntzaren aurretik.

Tratamenduen oinarri juridikoa: Anesvadek bere Etika eta Jokabide Kodearen arau-haustea prebenitu, ikertu eta kontrolatu nahi ditu, eta legezko interes hori da tratamendurako oinarria.

Noiz arte gordeko ditugu zure datuak?: Ikerketen esparruan tratamenduaren xede diren datuak deuseztatuko dira ikerketak amaitu eta berehala eta/edo legez nahitaezkoa den eta/edo barne-eta kanpo-auditoriak gauzatzeko ahalbidetzen duen denbora igarotzen denean.

Zein dira zure eskubideak?: Zure datu pertsonalak tratatzen ari garen edo ez berresteko, eta, hala bada, horietan sartzeko eskubidea duzu. Okerrak direnean datuak zuzentzeko ere eska dezakezu, baita osatu gabe daudenean datuak osatzeko eskatu ere, edota datuak ezabatzeko eskaera egin dezakezu, besteak beste, datuak jada beharrezkoak ez badira bildu ziren garaian zituzten xedeetarako.

Zirkunstantzia jakin batzuetan, zure datuen tratamendua mugatzeko eskaera egin ahalko duzu. Hala bada, eraginpeko datuak tratatuko ditugu, soil-soilik, salaketak egin edo defendatzeko edo beste pertsona batzuen eskubideak babesteko.

Kondizio jakin batzuetan eta beren egoera partikularrarekin zerikusia duten arrazoiak tarteko ere, zure datuen tratamenduaren aurka egiteko aukera izango duzu. Kasu horretan, datuak tratatzeari utziko diogu, non eta tartean ez badaude zure interes edo eskubide eta askatasunen gainetik dauden ezinbesteko eta legezko arrazoiak, edo salaketak formulatu, gauzatu edo defendatzeko.

Horrez gain, eta baldintza jakin batzuetan, zure datuen eramangarritasuna eskatzeko aukera izango duzu, tratamenduaren beste arduradun baten esku utz daitezen.

Xede jakin batzuetarako eman duzun baimena bertan behera utz dezakezu, eta horrek ez du eraginik izango kendu aurreko baimenean oinarritutako tratamenduaren legezotasunean.